MENDIAGÉ, Jose

Laphurdi eta Bachenabarre Ziberoa eta Navarra
Guipuzkoa eta Biscaya zazpigarrena Alava
Guziek elgar atchik dezagun urholera ahal bada...
Aiten Kustumak segi ditzagun galtzen ez dezagun Amma

---

Eskual Herriak gaizki gabiltza iragan dembora handian
Batzu castillaz bertziak frangzez ari gira solasian
Denen ikhastia gizonak on du aise ibiltzeko munduan
Bainan eskuara atchik dezagun ahatzi gabe buruan

---

Ala Frantzian nola Espainian iragan dembora handian
Gure lengoya nahiz galarazi, ari dirade lanean
Amma utz eta amazuna bar gertha litake orduan
Geldi gaitezen gure Ammarekin hoberik ez da munduan

---

Aita eskuaraz mintzo da eta semiak arrapostua
Soy vascongado pero ahatzi zait ttipitikan ikhasiak
Ez deya hori Ammarendako bihotz erdiragarria
Berak mundurat eman orduan, semiak ez ezagutzia

---

Gezar en ordez tropak yen ziren Eskual Herrirat milaka
Kostumatuak denen ibiltzen beren aizinian lasterka
Bainan orduan ezagutu zuten Eskualdunaren arraza
Menoi sorhuan dagon lehoina handik kentzia neke da

---

José Mendiague

Guy Cazenave
ORFÈVRERIE
OBJETS D'ART
HAUTE FANTAISIE
46, Rue d'Isly
ALGER

TÉLÉPHONE 68.72
C. POSTAL : 120.40
R. C. Alger 19.459

Alger, le .............................. 193